

Bilatu ...

[EU](#) [ES](#)

Dasti sagardoetxean

Euskal Sagardoaren Museoan Dasti maskota bizi da. Dasti, duela 80 urte nekazari batek erein zuen sagarrondoaren fruitua zen. Urteak pasa zituen sagarrondoan zintzilik beste sagar guztiekin batera, baina udazkena iritsi zenean, sagar guztiak lurrera erori eta bera bakar bakarrik gelditu zen zuhaitzean... Egun batean, pisu izugarria hartu ondoren, laguntza eskatu behar izan zuen sagarrondo hartatik jaisteko eta Sagardoetxeko biztanleek lagundu zioten. Orduz geroztik, Dasti Sagardoetxean bizi da. Ekimen didaktiko honetan, Dastiren istorioa aitzakiatzat hartuta, hurrek sagardoa nola egiten den ikasiko dute dantza eta musikaren laguntzarekin.

**Non**[Astigarraga](#)**Kalea**

Karmengo

Andre Mariaren

Kalea, 32

Ordutegia

12:30

Atalak[Antzerkia](#)**Target-a**[Gazteak](#)[Haurrak](#)[Nerabeak](#)**Antolatzailea**

Arantzazuko

ama ikastolako

antzerki taierra,

Astigar dantza

taldea,

Norberto

Almandoz

musika eskola

eta

sagardoetxea

[Webgunea](#)